

**EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEURRENA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAN**

1994.09.21

EUSKALTZAINDIAREN 75. MUGAKARI

Donostian, 94.09.21

*Jean Haritschelhar
euskaltzainburuaren mintzaldia*

Agintari ohoragarriak,
Euskaltzainkideak,
Jaun-Andereak,
Agur.

Bilduak gara egun, Gipuzkoako Aldundi honetan, Euskaltzaindiaren sortzearen 75. urtemuga ospatzeko.

Agurtzen zaituztet, agintari ohoragarriak, hemen zaudetelakotz gure deiari erantzun baikor bat emanez, frogatzen duzelakotz Eusko Jaur-larritza, Nafarroako Gobernua, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako aldundiek estimu handitan daukazuela Euskaltzaindia, onartu duzelakotz ere aholkulari ofizial gisa euskarari dagokionez.

Euskara, gure hizkuntza maitea, da elgarretaritzen gaituena, gure arteko lokarrik sakonena, egiazko euskaldun egiten gaituena, gure nor-tasunaren ikurririk nabarmenena.

Ohore zuei, agintari jaun-andereak eta bihotzaren zolatik mila esker Euskaltzaindiaren izenean.

* * *

1919.eko irailaren 21ean, duela 75 urte, hemen berean, Gipuzkoako Aldundiko areto nagusi honetan, sortu zen Euskaltzaindia. Aspaldian ainitzek ikusten eta aldarrikatzen zuten akademia baten beharra. Lehena, Jose Paulo Ulibarri Galindez-ek bere *Gutun liburuan* argitaratzen ditu ukan eta idatzi dituen gutunak, haien artean Pedro Novia de Salzedo-ri hauxe derasana:

“Ogueta lau gizon biar dira icentau Guernicaco bazarrean euskaren ganean eguiteco aleguife au.”

Bakarrik aipatzekotan, haren ondotik hor ditugu Aizkibel, Louis Lucien Bonaparte printzea, d'Abbadie euskal letren Mezenas handia, Jose Manterola, Artiñano, Arana Goiri...

Azkenean, 1918.eko urtarrilaren 25ean, Bizkaiko Diputazioan, Kosome Elgezabal eta Felix Landaburu bizkaitar diputatuak irakurtu zuten euskal akademia baten sortzeari buruzko txosten bat, aho batez onartua.

Bildu zelarik euskal estudioen lehen kongresua 1918.eko irailean, hartu zen Akademiaren sortzearen erabakia eta izendatuak izan ziren lehenbiziko lau euskaltzainak: Resurreccion Maria de Azkue, Arturo Campion, Luis Eleizalde eta Julio de Urquijo. Aurre-araudi bat egin zuen Raimundo Olabidek, Eusko Ikaskuntzak bere gain hartu zuena, eta presentatu lau diputazioei, denen babesaren lortzeko: Gipuzkoak 1919.eko apirilaren 11an, Bizkaikoak maiatzaren 5ean, Arabakoak irailaren 2an eta Nafarroakoak irailaren 3an.

Babesak lorturik prest dago haurtxoa mundura agertzeko. Irailaren 21ean, beraz, Eusko Ikaskuntzak deiturik bildu ziren hemen berean jandak izendatuak izan ziren lau euskaltzainak: Azkue, Campion, Eleizalde eta Urkijo eta horiekin batean *Jaungoiko-zale*, *Euzko-Deia*, *Jesusen Biotzaren Deia*, *Irugarrengo Prantziskotarra*, *Euskal-Erria*, *Euskal-Erriaren alde*, *Euskal-Esnalea*, *Revista Internacional de los Estudios Vascos* eta Baionako *Eskualduna* "deritzen agerkariak bialdutako autesleak".

Euskal kulturen murgiltzen ziren agerkarien ordezkariak hautatu zituzten bertze zortzi euskaltzainak: Domingo Agirre, Pierre Broussain, Blaise Adema, Ramon Intzagarai, Jose Agerre, Juan Bautista Eguzkitza, Raimundo Olabide eta azkenik zubereraren izenean, Aita Pierre Lhande. Hamabi euskaltzain: bederatzi Hegoaldekoak eta hiru Iparraldekoak; sortu zen ordutik mugaz gaineko erakundea izan da Euskaltzaindia.

Bilkura sortzaile horren buru Julian Elorza jauna izan zen, idazkaria Angel de Apraiz, biak Eusko Ikaskuntzako buru eta idazkaria. Eusko Ikaskuntza aita ponteko izan zen. Hori nahi nuen argiki agertu Goio Monreal orain Eusko Ikaskuntzako buru denaren aitzinean, denbora berean agurtzen dudalarik.

* * *

Orain itzultzen naiz gaurko komunikabideetako zuzendariei buruz. Orduko euskal agerkarien buruzagiak, Hegoaldeko lau aldundiak eta Eusko Ikaskuntza izan dira Euskaltzaindiaren sortzaileak. Orduko agintariek eta, dudarik gabe, orduko idazleek hedatzen, kaleratzen zuten

euskara. Orain, zuek zarete euskararen hedatzaileak. Zer aldaketa ikaragarria anartean, bereziki frankismo garaia bururatuz gero!

Sekulan baino gehiago idazten da euskaraz, ikusiz zenbat eta zenbat liburu agertzen diren urtero, gai guziak hunkituz, hezkuntzakoak, administraziokoak, zientzia, filosofia, literatura eta abar... Hor ditugu aldzkariak, astekariak eta bereziki *Euskaldunon egunkaria*, egunero eskaintzen dizkigularik bere 32 orrialdeak. Euskaldunek eta euskaltzaleek badaukate eguneroko bazka.

Hor ditugu irratiak, Hegoaldekoak Iparraldekoak bezala, ez baitzen holakorik duela 75 urte. Euskal irratiei esker, euskaldunak badauka orain, nahi duelarik, euskararen entzuteko parada.

Hor dago ere Euskal Telebista, Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Parlamentuak sortua, duela orain hamar dotzena bat urte. Sartzen zaigu etxean, atseginekin hartzen dugu, hamabi orenez egunean ikus ditzakegularik zabaltzen dituen emankizunak.

Aro berri honetan, zuek zarete euskararen hedatzaile berriak. Segizkitzue zuen lanak, hedazazue euskara garbi, txukun eta alai bat eta zuen eginbidea osoki betez, ukanen dituzue gero eta irakurle, entzule eta ikusle gehiago, euskararen onerako.

* * *

Jauzi haundi bat eginez, heldu gara 1968.eko urtera. Euskaltzaindiak ospatuko du orduan bere 50. urteurrena. Bilbon urtarrilaren 26an egin zen bilkuran, hartu zuen xede bat. Honela dio Agiriak: "Aresti-k dio ordua dela euskararen batasuna seriooki artzeko eta biltzar nagusi orretarako gairik bearrezkoena euskararen batasuna dela. Gero, euskeraren batasunari buruz, erabagi batzuek artzeko euskaltzainak bakarrik, beren artean autatzen dituzten beste norbaitzuk ekipoan arturik, oiñarri batzuek artu bear lituzkeela esan da. Euskalki bakoitza errientzat errespetatuaz, literaturarako euskera batasun bat lortzeko".

Arantzazun bildu zen kongresua urriaren 3tik urriaren 5a arte. Ez ditut hemen aipatuko han izan ziren kataskak eta kalapitak, historian sartuak direlakotz. Halere, labur bilduz, oroitaraziko ditut Koldo Mitxelena agertu zituen oinarriak:

1. "Ezin bestekoa, il edo bizikoa, dela uste dugu euskara batasun bidean jartzea.

2. Ez luke gai honetan iñor mindu nahi Euskaltzaindiak, baina ezin diteke batasunera jo, iñor mindu gabe. Batasun osorik egiteko, ordea, ez du Euskaltzaindiak ez eskurik ez indarrik, ez berez ez besteren

bitartez. Gidari eta bide erakusle agertu nahi luke orain, gauden egoeran, egin ditezkeanaren neurrian.”

3. Azkenik, mugatzen ditu xedeak:
 - a) Idazkera eta ortografia
 - b) Antzinako euskal hitzen formak
 - c) Hitz berrien eraketa eta bestetandik hartuen forma
 - d) Morfologia: izena (izen-ordea) eta aditza
 - e) Joskera

Ez zen gai berria euskararen batasuna, gai berritua baizik, aspaldidanik aipatua. 1920.eko Euskaltzaindiaren sortarauetan, hauxe irakur dezakegu: “ekingo du eskualgi oroen odolez azitako euskal eredu bat gertutzen, itzez, itz-yoskeraz ta idazkeraz al bait erabatetsuena, euskaldun guziak idatz-irakurketan erabiltzekoa”.

Argi eta garbi dago euskararen batasuna gure aitzinekoen xedea zela, Campion eta Broussain-ek landu zutena idatzi zuten txostenean. Zorigaitzez hortan gelditu zen.

50 urteren buruan, gure belaunaldia lotu zitzaion lanari. Hamar urtez Euskaltzaindiak eskaini zituen proposamenak batasunaren gauzatze-ko: ortografia, deklinabidea, erakusleak, aditz laguntzaileak eta bertze... Hamar urteren buruan, 1978.eko irailean, Bergarako biltzar nagusira dei zabal bat egin zuen Euskaltzaindiak, ehun bat jende baino gehiago etorri zirelarik biltzar hartara.

Berriz ere Mitxelenarengana noa bere “Arantzazutik Bergarara” artikuluan hauxe dioelarik: “Natorren berriz arira. Arantzazukoaz eta ondorengoez oroitzen naizenean, gogoan barrena sumatzen dudana poza da eta ez damua. Iñolako damurik nabaritzen ez dudala esango balinbanu ez nuke gezurrik esango...”.

Eta urruntxago: “Erabakirik onena hartu zuen, Euskal Herriari, euskaldun guziak minduko bazituen ere, aspaldixko zor ziona: batasun bidetik, gerotik gerora ibili gabe, gogotik eta deliberatuki abiatzea”.

Egia da urrats ederrak eman zirela anartean eta idazleek emanikako erantzunei esker, ikus zitekeen idazle gehiengoak Euskaltzaindiaren proposamenak onartu zituela eta baliatu. Euskara batuaren (hala izendatua izana da) lehen urratsak hamar urte horietan eman dira. Bergarako biltzarkideek eskainitako iritzia bereganatu zituen Euskaltzaindiak eta Arrasateko Biltzarrean erabakiak hartu. Erran nezake zuhurki jokatu zela Euskaltzaindia eta geroztik, morfologian bederen, batasuna lortu zuela.

Aski dira irakurtzea liburu, prentsa eta bertze konturatzeko zer aldaketa haundia izan zen zenbait urtez.

Bergara eta Arrasatetik (hau 1979.ean) Leioara, aurtengo urriaren 3tik 7ra bertze itxura bat hartu dute Euskal Herriak eta Euskaltzaindiak. Lau diputazioen ordez baditugu Hegoaldean Euskal Komunitate Autonomoko Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako diputazioak. Euskara hizkuntza ofiziala da Komunitate Autonomoan eta Nafarroako euskal eremuan.

Euskaltzaindia Erret Akademia bilakatu da 1976.ko otsailaren 26ko Erret Dekretuari esker eta aholkulari gisa onartua da, bai Komunitate Autonomoan, bai Nafarroan.

Oxtion erraiten nuen bezala, aro berri batean sartuak gara aldaketa haundiak izan baitira politikan, gizartean, hizkuntzan bezala. Euskaltzaindiak batzordeetan egiten du lan eta fruituak ageri dira:

1. *Orotariko Euskal Hiztegia* bere sei liburukiekin, zazpigarrena laster agertzekotan.

2. LEF azpibatzerdea hitz elkarketen proposamenak eginik, orain eratorpena eskainiko duena.

3. *Gramatika lehen urratsak*: lau liburuki argitaratuak, joskeran murgildurik daudela Gramatika batzordekideak.

4. Euskal Herriko Hizkuntz Atlasak, inkesta guziak bururatu ditu eta datuen informatizatzen ari dira batzordekideak.

5. Onomastika batzordeak segitzen du hain artoski hasi duen lana kongresu eta argitalpenek frogaturik.

6. Literatura batzordeak antolatu ditu kongresuak eta jardunaldiak istudio sakon batzuk argitaratu dituelarik, Elizanburu eta Oihenarteren oibrei buruz azken biak aipatzekotan bakarrik.

Duela urte bat, Oñatin, erraiten nuen 75. urtea lan urtea izanen zela. Jardunaldiz Jardunaldi ibili da Euskaltzaindia, urtarrilean Donostian, otsailean Bilbon, martxoan Iruñean, apirilean Gasteizen, maiatzean Bilbon, ekainean Miarritzen, uztailan Donostian. Euskal Herriko eremu guzietan egin diren jardunaldietan etorri dira entzuleak, eztabaidatu dira batzordeek landutako txostenak.

Hemen datza urte honetako emaitza:

1. Euskara Batuko batzordeak: Euskaltzaindiaren gomendio-erabakiak, 39 orrialde.

2. Gramatika batzordeak:
 - a) Batasunerako proposamenak, 65 orrialde.
 - b) Okerrak zuzenduz, 55 orrialde.
3. Euskara Batuko batzordeak: hitanoaz, 65 orrialde.
4. LEF batzordeak: eratorpenaz, 23 orrialde.
5. Hiztegi Batuko batzordeak: aztergai sistematikoak: irizpideak, 37 orrialde.
6. Literatura batzordeak: euskal metrikaz, 69 orrialde.
7. Onomastika batzordeak: exonomastikaz, 115 orrialde.
8. Ahoskera batzordeak:
 - a) Azentua eta euskara batua, 17 orrialde.
 - b) Ahoskera baturantz, 29 orrialde.

Orotara, 514 orrialde, kondatu gabe Hiztegi Batuak A eta B letrak eskaini dituen D eta E letrak eskainiko dituelarik egun hauetan eta berzeak geroxeago.

Barkatuko didazue zerrenda luze hau baina nahi dut erakutsi zer lan mota egiten den Euskaltzaindian eta, bidenabar, batzorde kide guztiak eskertu bihotzaren erditik.

* * *

Leioan bilduko gara beraz datorren urriaren 3tik 7a arte, txosten guzien eztabaidatzeko, euskaltzaleen iritzia lortu nahiz (300 baino gehiago izena emanik). Euskaltzaindiak, gehiengoaren onespina ardietsi eta, Arantzazuko kongresuan bezala, erabakiak hartuko ditu.

Egun, Euskaltzaindiaren 75. urtemuga ospatzean eta Leioako biltzar nagusiaren bezperan, ez nagoke Koldo Mitxelenaren oroitzapena gogoratu gabe.

Koldo, nahiz ez zaren sekulan euskaltzainburu izan, egiazko “*primus inter pares*” izan zara urte luzeetan. Beti argitu duzu Euskaltzaindia zure jakituriaz. Euskararen batasunerako bidea urratu duzu Arantzazun lehenik, Bergaran eta Arrasaten gero. Goi hartarik ikus dezakezu bagoatzila bide beretik, euskara landuz, euskara hobetuz, euskara gaurkotuz, euskara baturantz urrats bat gehiago emanez.

Iragana gogoan, jotzen dugu aurrera geroari buruz.

Eskerrik asko.

EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEURRENA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAN

Donostia, 1994.09.21

*Jose Antonio Ardanza,
Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Lehendakaria*

Euskaltzainburu jauna,
Agintariok,
Jaun-Andreok,

Ez dut une berean leku desberdinetan egoteko dohainik. Bestela, egia esan, hortxe ere izango nintzateke zuekin. Izan ere, euskara zain-
tzen, euskarari bizirik eusten 75 urtez jardun duen erakundeak merezi
du. Eta merezi duzue zuek, Herri honen ezaugarriak nabarmenaren, on-
darerik ederrenaren eta hango eta hemengo euskaldunen lokarriak sen-
doenaren arduradun eta zaintzaile zaretanak. Eta merezi duzue ospaki-
zun horretara bildu zaretan euskal irakasle, idazle eta euskalgile guztiok
ere.

Baina itsaso haundi batek eragozten dit gorputzez zuen artean iza-
tea, Euskal Herriari eta euskaldunei munduko leihoak zabaldu nahian
etorria bainazue Ipar Ameriketara. Ez naiz lehenengoa. Nire aurretik
euskaldun asko dira hona etorriak, lan bila, bizimodu hobearen bila, ba-
bes eta gordeleku bila. Ameriketak, berriz, beti ongi hartu gaitu euskal-
dunok.

Euskal Herriak oraintxe ere badu Ameriketaren beharra. Premia ho-
rrek beharturik etorria nauzue hona, dakizuen bezala. Gure aurrekoei
esker lortutako adiskidetasuna sendotzera eta ekonomiari eta merkatu-
rari bideak zabaltzera etorria nauzue, hain zuzen. Hemen bizi diren eus-
kaldunei gata beraien ondorengoei ere erakutsi nahi nieke, bide batez,
Euskal Herriaren maitasuna. Nonnahi bizi garelarik ere euskaldunok he-
rri bat garela sentiarazi nahin nieke.

Horregatik mintzo natzaizue Ameriketatik. Horretan ere ez naiz le-
henengoa. Behin eta berriz hitzegin baitzigun hemendik Jose Antonio
Agirre lehendakariak Euskal Herriko jendeari, euskaldun espetxeratu eta

atzerriratuei, laguntza eta adorea eskainiz. Niri ere Ameriketatik hizketatzea suertatu zait, hor elkarrekin bildu zareten euskaltzale guztiokin, Euskaltzaindiaren egun seinالاتu honetan.

Hitzegin ere zorionak emateko, lanerako gogoia berotzeko eta Ameriketako euskaldunek Euskal Herriarentzat eta euskararentzat egin zutena gogorarazteko, hitzegin nahi nizueke.

Langile zintzo eta hitzeko gizonen fama zabaldu ziguten euskaldunoi mundu osoan. Baina eskulanera, artzaintzara, nekazaritzara eta aberastera bakarrik ez ziren etorri euskaldunak. Lekuan lekuko jendearekin bat eginik, amerikarren askatasunaren eta aurrerapidearen alde ere saiatu ziren. Badira euskaldunon kultura eta artea erakutsi dutenak ere. Baita euskara irakasten eta lantzen ahaleginak egin zituztenak ere. Garai haieran adina euskarazko gutun eta bertso gutxitan egingo zioten euskaldunek elkarri. Ameriketara euskaldunek sortutako bertsoak, olerkiak eta prosa ezaguna eta miretsia izan da. Hegoaldean euskara zigorturik zegoen garai larri hartan ere Ameriketara sortu ziren euskarazko aldizkariak eta liburuak. Orixe, Zaitegi, Andima Ibiñagabeitia, hil zaharrak ez diren Justo Garate eta Jon Bilbao eta abarrek egindako lan eskerga gogoratu besterik ez dugu. Ameriketa eta euskaldunen arteko beste lotura adierazgarria Nevadako Unibertsitatetik Renon egiten den guztia ere badugu.

Nik baino hobeto dakizue hau guztia, jakina, baina Ameriketatik mintzo natzaizuenez, beharrezkoa zait euskaragatik erasotuak izan ziren guztiak oroitzea eta eskertzea.

Orain, berriz, nire aldetik ausardi haundiegia bada ere, utzidazue bi hitz, zuei, euskaltzain eta euskalgileoi esaten. Lau diputazioek sortu zuten Euskaltzaindia, artean ez baitzen Eusko Jaurlaritzarik. Baina Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza sortu zituzten iritzi guztietako euskaldun haien buru-bihotzetan zegoen burujabetzaren, autonomiaren eta elkartasunaren burubidea ere. Euskal erakundeak eta burujabetza geroago gauzatu badira ere, Autonomi Estatutuaren eta Jaurlaritzaren asmoak ere hantxe egosi ziren. Eta Euskaltzaindiak berak ere euskal erakundeak osatu direnean eskuratu ditu lanerako behar zituen baliabideak eta tresnak.

75 urte geroago elkarrekin bildurik gaude Euskaltzaindiaren partaideok eta herri-agintariok. Euskaltzaindiak itzal haundia lortu du bere bitzita luzean, Resurreccion Maria Azkue, Inazio Maria Etxaide, Jose Maria Lojendio, Manuel Lekuona, Koldo Mitxelena eta Luis Villasante bezalako gizon argi, jakintsu eta zentzudunei esker. Eta lortu du herri-erakundeen babeseta eta laguntza ere.

Euskara batuak, euskarak berak hizkuntza bezala ere, behar-beharrezkoa du guztion onarpena. Koldo Mitxelenak esan ohi zuen bezala euskarak ere Aita Santu bakar bat behar zuen gidari. Aita Santu hori Euskaltzaindia suertatu da, Mitxelenaren nahia betez. Lortu duzuen guztion onarpen hori ez ezazue gal, beraz, inoren zabarkeriaz, harrokeriaz, setakeriaz edo alderdikieriaz.

Hizkuntzalari bati ez zaio presaka erabaki beharra atsegin. Baina administrazioan, irakaskuntzan eta kazetaritzan dihardutenek presa haundiko premiak dituzte eskuartean. Presa eta premia haundiak dituen hizkuntzaren akademia da Euskaltzaindia. Euskarak galtzorian dituen altxorrek biltzeko, beste hizkuntzek egindako mailatuak eta maspildurak konpontzeko eta gaurko egunerako tresna egokia bihurtzeko premia eta presa ditu euskarak eta hizkuntza horretan lan egin behar duen irakasleak, funtzionariak, kazetariak, idazleak eta abarrek.

Orain arte egin duzuenaren esker ona agertu ondoren, lanerako deia egin nahi dizuet, beraz. Euskarari eta bere ikerketari zenbat eta emangoak zareten, argibideak, aholkuak eta erabakiak zenbat eta egokiagoak, garaizagoak eta bateratuagoak, hitzez eta ekintzaz, eskaintzen dituzuen orduan eta itzal haundiagoa izango duzue. Orain 75 urteko gizon-ema-kume haiek ezer erakutsi baziguten horixe erakutsi ziguten: iritziak iritzi eta ideologiak ideologi, elkarrekin egin behar dela lan euskararen, euskal kulturaren eta herri-erakundeen alde.

Aurrera, beraz: *Ekin eta Jarrai.*

Zorionak eta eskerrik asko.

New York, 1994.eko irailaren 21ean

EUSKALTZAINDIAREN 75. URTE DIRELA-TA

Donostia, 1994.09.21

*Jose M.^o Rodriguez Ochoa,
Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia*

Gaurko ospakizun handi honetan Nafarroako Gobernuko Lehendakaria bera pozik izango zen hemen, baina eragozpen pisuzkoak izan ditu. Ohore handia da niretzat, haren izenean hemen agertzea; baina badakit ez dudala erakutsiko hark duen autoritate, trebetasun eta estilo bereizgarria.

Gaurko eguna oso berezia da eta helburu zehatza du Euskaltzaindiaren sorreraren hirurogeita hamabosgarren urteurreneko ekintzen esparru zabalean. Hertsiki mintzatuz, Euskaltzaindiaren osakera deitu ohi dena ospatzeko, bildu gara. Zer esan genezake mila bederatzehun eta hemeretzigarren urteko irailaren hogeita bat hartaz aurtengo irailaren hogeita bateko ikuspegitik? Dudarik gabe orduan bildutakoen jarrera eta asmoak gaurko gureen oso antzekoak ziren. Ikuspegian daude aldeak, batere alderik badago. Lehenbiziko bilera haren ezaugarri nagusi izan zen hasierak berekin izan ohi duen ilusia; asmoak ugari ziren, baina ezin ukatu etorkizunari buruzko beldur eta ziurtasunik eza. Gaur, berriz, atsegin handiz ikusten dugu Euskaltzaindiak burutu duen lan eskerga. Oztupoak ez dira nolana hikoak izan: batez ere gerra zibil baten esperientzia mingarria, ez baita ahaztu behar hizkuntza txikietan izan zuen eragin larria. Baina askoz gehiago da aldatu gabe lehengo berean iraun duena. Izan ere, Euskal Herriko erakunde berak gaude, laguntzarako eta erantzunkizuneko jarrera berarekin. Eta batez ere Euskaltzaindia berbera da, euskara ikertu, babestu eta jagoteko asmo berberekin. Horregatik adierazgarria da oso, hirurogeita hamabost urteren buruan, erakunde berberak eta egun, leku eta ordu berean biltzea, ordu aldaketak kontuan hartzen baditugu.

Bigarrenik, ordezkari bidali nauen instituzioari dagokionez, gogora ekarri nahi nuke laburki Nafarroako Gobernuak Euskaltzaindiarekin izan duen jokabidea. Nafarroak ohoretzat dauka Euskaltzaindia sortzeko ideiari bere babes suharra eman izana. Izan ere, Nafarroako Diputazioak

Urkijoren mozioa deritzanaren proiektua onartu zuen mila bederatziehun eta seian. Azkuek mila bederatziehun eta hamahiruan emandako pausoen alde agertu zen. Eta bereziki Oñatin mila bederatziehun eta hemezortzian Eusko Ikaskuntzaren I. Batzarrean hartutako erabakien alde agertu zen. Ondoren bide horretatik jarraitu du, garbi uzten duenez Euskararen Foru Legean, mila bederatziehun eta laurogeita seikoan, aholku erakunde ofizialtzat Euskaltzaindia hartzeak, eta Eusko Jaurlaritzarekin eta Foru Diputazioekin batera mila bederatziehun eta laurogeita hemeretzi Hitzarmena sinatu izanak. Horregatik, Nafarroako Gobernuaren pozik sentitzen da Euskal Herriko bere kideko instituzioekin batera Euskaltzaindiari beti loturik egon izanaz. Ohoretzat dauka hori egina, eta —zergatik ez—, bidezko du horretaz harro sentitzea. Aldi berean aldarrikatu nahi dut norabide horretantxe aurrera jarraitzeko asmo sendoa, eta hartutako konpromisuak hitzeman bezala betetzekoa.

Azkenik, Nafarroako Gobernuaren ordezkari gisa, honako hau besterik ez zait geratzen: Euskaltzaindiari zorionak ematea eta egindako lan eskerga eskertzea. Eta animatu nahi nuke, *Ekin eta Jarrai* ikurrarekin bat, beti zintzo egon dadin bere helburuekin, ikerketa eta hizkuntzarekiko ardura, alegia. Ikur horixe behar genuke gidari gainerako herri-agintariok eta Euskal Herriko biztanleok euskararen erabilpena normalizatzeko elkartasunezko eginbeharrean.

EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEURRENEAN: ARABA ETA EUSKARA

*Donostia, 1994.09.21
Gipuzkoako Foru Aldundian*

*Alberto Ansola,
Arabako diputatu nagusia*

Arabatik natorkizue. Haren izenean eta arabar hizkuntzaz mintzatzeko natzaizue.

Araba, lur laua eta era berean menditsua. Lurralde goi eta orekatua. Orekatua, bere biztanleak diren bezala: adeitsu eta atseginak.

Zer da Araba euskararentzat?

Iragandako historian, dirudien baino gehiago. Araban zehar eta mendez mende, zenbait euskalki gurutzatu dira.

Euskararen garapen luzearekin Arabaren lurretako toponimian topa gaitzke: *Haritzabaleta* hamaikagarren mendean eta *Aretxabaleta* gaur, *Lexargibel* hamazazpigarrenean eta *Abaisolo* mende honetan. Han, urrutian, *Artzena* mendizerra eta *Artziniega* hiria, antzinako Autrigonian biak. Bertan ere, eta *Gobea* haranaren erdian, *Karria* izenaz deritzan haitzak deitura harrigarri hori Erdi Arotik gutxienez darama, K gogortu horrekin. Apur bat ekialderago, *Harkamo* mendizerrarekin egiten dugu topo; oraindik orain, ingurukoek *Karkamo* deritzate karezko mendikate honi.

Hona ba aspaldiko izen eta ahoskera gogortu bereziak Arabako mendebaldean.

Beste aztarna mota batzurekin ere topatzen gara Arabako bi bazterretan: bai ekialdean, eta bai eta mendebaldean ere. Lehenengo erderekin, alegia.

Ekialdean, Kanpezu aldean, nafar erromantzea nabaritzen dugu toponimia txipian eta mendebaldean berriz, Gobea haranean, hain zuzen, antzinateko gaztelera, Erdi Aroko itxuraz gainera. Erromantze horien sorpena gure inguru gertuan, gurean ez bazen, gertatua dugu.

Eta erromantze horien ondoan, alboan, barnean eta gainean euskara soma eta aurki dezakegu.

Arabaren oparotasunaz hitz egiten digu historia uhinkor eta aberats horrek.

Eta eboluzio luze honen ondorio nagusitzat, eta batzurentzat paradoxa gerta litekeen arren, hauxe aurkitzen dut: funts eta muinean, Araba batzen duena euskara dela. Araba sustatzen duen sustrai sendo eta mardula euskara da. Arabarren sen sakonean euskara datza. Sen sakon horren agerpen bizi nabariena arabar euskaltzaleek eratzen dute.

Arabako Ahaldun Nagusia naizen aldetik, euskara landu duten arabar euskaltzaleen izen guztiak agertu nahi nizkizuke, pozaren pozez, inor aipatzeke geratu bage; baina agerpen oso hori ia ezinezkoa izanik, izen soil batzuk behintzat, testigantza gisa, aipatuko dizkizuet:

Aramaioko Barrutia, Jauregi, Untzueta eta Pujana; Sabandoko Gamiz; Laudioko Belaustegigoitia; Araiako Urrestarazu "Umandi" eta Gas-teizko Olabide, Apraiz eta, beste batzuren artean, egun, gure artean Euskaltzaindiaren idazkari bezala lan egiten duen Endrike Knörr jaun prestu eta argia.

Konturatu zarete, jadanik, arabar euskaltzale denak ez ditudala ize-
nez izen aipatu eta horien artean, azkenerako utzi dut espreski, joan den mendearen hasieran, euskararen alde kemenez jardun zuen mariskal be-
terinario baten izena, hots, Jose Paulo Ulibarri, Okondokoa. Gizon ado-
retsu hori aurrelari gertatu zitzaigun, euskararen onerako hain onuraga-
rria izango zen Euskaltzaindiaren beharra, bere *Gutunliburuan* agertu
ziguenean:

"Ogetalau gizon biar dira izentau
Gernikako batzarrian
egiteko alegin an,
euskeraren ganian."

Ia ehun urte iragan behar izan ziren, Euskaltzaindiak, Aldundien eskutik, gorputza hartu arte.

Hirurogeita hamabost urte betetzen ditugu gaur, egun zoragarri har-
tatik. Har ezazue, ba, nire zorion beroena.

Giro pozgarri honetan, eta amaitzeko, Jose Paulo Ulibarrik bere hi-
riaz esan zituen hitz haiek gogoratu nahi dizkizuet:

"Okondoko erria,
da euskaldun bere izatia."

Araba osoa kontuan izanik, Arabako diputatu nagusia naizenez gero, ene egitekoa hori baita, zilegi bekit Ulibarriren baieztapen hori honela osatzen saiatzea:

“Arabako herria,
euskaldun duzu
zure izatea.”

Eskerrik asko.

EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEURRENEAN

*Donostia, 1994.09.21
Gipuzkoako Foru Aldundian*

*Jose Alberto Pradera,
Bizkaiko diputatu nagusia*

Agintari,
Euskaltzain,
Jaun eta Andreok:

Euskaltzaindiaren lehen bileraren hirurogeita hamabost urte betetzen doguz gaur, bilera ha egin zen toki berean eta, aitagarriago dana, euskera zaindu, batu, indartu eta suspertuteko ispiritu beraz eta, hobe dana, agian orduko itxaropen beraz eta handiagoaz euskararen etorkizunari buruz.

Hirurogeita hamabost urte honeek berez merezi dabe zorionik suitsuenak. Hainbeste urte ez dira sekula urte gitxi izango edozein erakunderentzat, baina askoz ere gitxiago Euskaltzaindia lako erakunde baten zat, euskarak urte honeetan jasan dituen erasoak Euskaltzaindian mamitzen zirelako, Euskaltzaindian aurkitzen ebelako okela eta hezur, Euskaltzaindia izan delako urterik txarrenetan ere euskararen ageriko ordezkaria eta euskeraren suzia pizturik eusten saiatu dena.

Euskerak egiten gaitu bat, hori egia da eta horri eutsi behar deusogu. Nahiz hiru, nahiz lau, nahiz sei edo zazpi izan, Euskal Herria bat da euskarari esker, euskarak egiten du Euskal Herria bat; eta euskaldunok ere, nahiz Hegoaldean, nahiz Iparraldean, nahiz Europan, nahiz Ameriketean izan, euskarari esker gara euskaldun eta anaiak.

Hori horrela izanik ere eta hori horrela delako, Euskaltzaindia da batasun hori garbien agertu eta orain ere agertzen dauana. Euskaltzaindiak beti hartu izan dau Euskal Herri osoa eta zuhurtasunez gordetzen jakin izan dau eraketa hori. Aurrerantzean ere bide berari eutsi dagiola itxaroten dogu, sekula ahaztu barik Euskal Herria denon artean osotuten dogula.

Nik, Bizkaiko ahaldun nagusia nazanez, baina baita Bizkaiko seme nazanez ere, gogora ekarri gura neuke Euskaltzaindiaren sorreran partaidetza berezia izan ebela Bizkaiko Foru Aldundian aurkeztu ebenak euskeraren zaingorako akademia sortu beharra. Eskari hori gero Oñatiko baztarrera eroan eban Kosme Elgezabalek eta hantxe izendatu ziran lehenengo lau euskaltzainak, eta horren artean Azkue lekeitiarra, eta urte askotan Euskaltzaindiko buru izan zana.

Beraz, Bizkaia hasieratik Euskaltzaindiaren alde egon da, eta harro gagoz gaur be bere egoitza gure lurraldean dagoalako.

Ez noa gehiago nire hitzok luzatzera. Urak bere bidea daroa, eta Euskaltzaindiak ere jarrai dagiola bere betiko bideari. Zorionik bizienak hirurogeita hamabost urte honekaitik, eskerrik egiazkoenak egin dauan lan handiagatik, eta eskaririk barrukoena jarraitu dagian ekinean, bere le-maren araura, inoiztxo ahaztu barik Bizkaia euskararen habe nagusia izan dela eta horrela izaten jarraitu gura dabela. Besterik ez.

Zorionak

EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEURRENA

*Donostia, 1994.09.21
Gipuzkoako Foru Aldundian*

*Eli Galdos,
Gipuzkoako diputatu nagusia*

Jaun-Andreok,
arratsaldeon.

Gaurko nire lehen hitzak, zuei denoi, herri-agintari, euskaltzain zein Gipuzkoako Diputazioaren jauregi honetara hurbildu zareten hiritar guztioi, nire ongi etorririk beroena helarazteko erabili nahi nituzke, eta bide batez, Euskaltzaindiari ospakizun pozgarri honen anfitrioiia izateko eman digun aukera, bihotz-bihotzez, eskertzeko.

Euskaltzaindiaren diamantezko ezteiak ospatzeko antolatu den egitarauak gaurko honetara bildu gaitu, beraz, mila bederatziehun hemeretzigarreneko irailaren hogeita batean, hirurogeita hamabost urte direla zehatz mehatz, Gipuzkoako Diputazioaren areto hauetan Euskaltzaindiak burutu zuen lehen bileraren konmemorazio ekitaldira, alegia.

Esan gabe doa, guretzat ohore handia ezezik barne poz berezirako arrazoia ere badela Euskaltzaindiaren historia jaiotze momentutik bertatik hain estuki lotuta agertzea Diputazioarekin. Ikuspegi horretatik, guregurea sentitzen dugu urtebetetze hau. Eta Euskaltzaindiari zorionak ematean, neurri txiki batean, geure burua ere zoriontzen dugulakoan nago.

Izan ere, sortze garaian Foru Aldundiak eta Euskararen Akademiaren artean eman zen uztardurak orain arteko ibilbidean zehar iraun du. Fisikoki ere egoitza izan dituzte euskaltzainek, sarri askotan, jauregi honen gelak eta aretoak, (asko pozten gaituena bidenabar esanda). Momentu zailtan sostengu izaten saiatu gara. Eta koiuntura historikoak esfortzuak berrindartzeko egokiera eskaini duenean bulkatzaile eta suspertzaile izateko erronkari adorez eutsi diogu.

Orain dela zenbait hilabete Oñatin izandako bileran esan nuenaren harira, ezinbesteko iruditzen zait diamantezko ezteiekin batera gaur ere

garrantzi handia daukan beste urteurrena aipatzea, ongi dakizuenez, aurren betetzen baitira hogeitabost urte Arantzazuko bilera ospatu zenetik. Hogeitabost urte, beraz, euskara batuaren oinarriak jarri zirenetik.

Hiru diputazioek, Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu Bizkaiko diputatu jaunek egindako proposamenari jarraituz, Eusko Ikaskuntzari euskararen akademia bat sortzeko proiektuaren ardura eman ziotenetik, ibilbide luzea egin du Euskaltzaindiak hogeigarren mendean barrena. Asko dira bere ardurapeko arlo desberdinetan burutu diren ekarpen eta lan emankorrak. Baina guzti hauen artean, duda izpirik gabe, gure hizkuntzaren batasunarena izan da nagusia.

Perspektiba historikoak ematen baitigu gaur egun aukera egokia bere momentuan Arantzazun hartu zen bidea noraino izan den erabakiorra baloratu ahal izateko, eta noraino hizkuntzaren batasun literarioa ezinbesteko lanabesa den komunikabideetan zein bizimodu modernoaren gainontzeko esparruetan ematen diren baldintzetan gure hizkuntza bizi dadin.

Arantzazun Euskaltzaindiak euskara hogeita batgarren mendeko hizkuntza modernoa bilatzeko oinarriak jarri zituen eta horrek euskaldun guztion aldetiko errekonozimendu berezia merezi du.

Aldi berean, egoki iruditzen zait prozesu honetan euskararen alde hain lan eskerga egin duten eta honezkero gurekin ez dauden hainbat eta hainbat euskaltzale gogora ekartzea eta omentzea.

Denok aipatzea ezinezkoa denez, zilegi bekit izen batean sinbolizatzea pertsona guzti horiena eta une honetan Koldo Mitxelenaoren oroitzenarekin batera joan dadila Euskaltzaindiaren altzoan gure hizkuntzaren alde ahalegindu diren guztientzako agurra eta ohorea.

Beraiek izan dira denontzako aintzindari eta eredu. Izan gaitezela gauza aurrekoek ireki ziguten bidean aurrera egiteko, ondorengoek ez dezaten inoiz esan: "euskara deitzen zen hizkuntza bat izan zen".

Euskalkaindia osatzen duzuen guztioi, berriz ere, zorionak, bihotz-bihotzez, eta, horrekin batera, jaso itzazue nire animorik beroenak zuen enblema goiburua, *Ekin eta Jarrai* aurrera eramanez etsi gabe. Egon zaitezte ziur ahalegin horietan ez zaretela bakarrik izango eta Gipuzkoako Diputazioa izango duzuela lankide zinko eta leial.

Mila esker denoi.